

Ondasunen esportazioak % 1,4 murriztu ziren 2025eko ekainean Euskal AEn

Produktu ez-energetikoen esportazioak, aldiz, % 2,5 hazi ziren

2025eko ekainean, Euskal AEko **ondasunen esportazioek** % 1,4ko urte arteko jaitsiera izan zuten, EUSTATen datuen arabera. Zenbatekoa 2.732 milioi eurokoa izan zen, aurreko urteko hilabete bereko 2.770 milioi euroen aldean. Ondasun *energetikoen* esportazioak % 59,8 murriztu ziren eta *ez-energetikoenak* % 2,5 handitu ziren.

Gipuzkoan esportazioak % 16,6 igo dira eta Araban % 8,7; aitzitik, Bizkaiko esportazioak % 22,6 jaitsi dira.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzaren bilakaera. Milaka eurotan. Ekaina 2025

	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK		
	Ekaina			Ekaina		
	2024	2025	Gehikuntza (%)	2024	2025	Gehikuntza (%)
EUSKAL AE						
HILABETEA, GUZTIRA	2.770.026	2.732.399	-1,4	2.266.519	2.296.448	1,3
ENERGIAZKO GAIAK	170.540	68.589	-59,8	511.047	428.914	-16,1
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	2.599.487	2.663.810	2,5	1.755.472	1.867.534	6,4
URTEKO METATUA	15.826.331	15.716.876	-0,7	13.819.834	13.603.433	-1,6
ENERGIAZKO GAIAK	1.112.273	667.122	-40,0	3.834.231	2.860.753	-25,4
ENERGIAZKOAK EZ DIREN GAIAK	14.714.058	15.049.754	2,3	9.985.603	10.742.680	7,6
ARABA / ÁLAVA						
HILABETEA, GUZTIRA	807.701	877.591	8,7	592.423	644.584	8,8
URTEKO METATUA	4.574.294	4.947.670	8,2	2.981.382	3.493.225	17,2
BIZKAIA						
HILABETEA, GUZTIRA	1.104.694	854.650	-22,6	1.193.467	1.177.359	-1,3
URTEKO METATUA	6.217.372	5.526.366	-11,1	8.133.950	7.227.991	-11,1
GIPUZKOA						
HILABETEA, GUZTIRA	857.631	1.000.158	16,6	480.629	474.505	-1,3
URTEKO METATUA	5.034.664	5.242.840	4,1	2.704.502	2.882.216	6,6

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Data 2022ko Ekainaren 16a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Euskal AEko **ondasunen inportazioek** % 1,3ko igoera izan zuten eta 2.296 milioi eurora iritsi ziren. Inportazio *energetikoe*k % 16,1 egin zuten behera, baina ez-*energetikoe*k % 6,4 gora.

Merkataritza-saldoa positiboa da (436 milioi euro) eta estaldura-tasa % 119koa.

Arabako inportazioak % 8,8 igo dira, baina Bizkaikoak eta Gipuzkoakoak % 1,3 jaitsi dira.

Produktuen araberako **analisi**a (*muga-zergen partidak*)

Xehetasunetan arreta jarritz, aurtengo ekainean muga-zergen bost partida esportatzaile nagusiak hauek dira: *"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak"* (301,1 milioi euro, urte arteko 31,6 milioi euroko gehikuntzarekin, 2024ko ekainean baino % 11,7 gehiago), *"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"* (177,4 milioi euro, beraz, 18,2 milioi euro gutxiago, hots, % 9,3 gutxiago), *"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak"* (161,4 milioi euro; beraz, 42,9 milioi euroko gehikuntzarekin eta % 5,9ko hazkunde erlatiboarekin), *"Arrantza-ontziak eta itsas produktuen tratamendurako lantegi-ontziak"*, 79,7 milioi euroko esportazioekin, eta *"Petrolio-olio finduak"* (61,5 milioi euro; beraz, aurreko urtean baino 18,6 milioi euro gutxiago, hau da, -% 23,2). Partida horiek guztizkoaren % 28,6 hartzen dute 2025eko ekainean, eta, guztira, 781,2 milioi euroko balioa dute.

Euskal AEko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	2.770.026	2.732.399	100,0	-1,4
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	269.570	301.143	11,0	11,7
Automobilentzako zati eta osagarriak	195.653	177.449	6,5	-9,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	118.570	161.447	5,9	36,2
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	45	79.716	2,9	175.465,7
Petrolioaren olio finduak	80.077	61.492	2,3	-23,2
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	47.612	58.999	2,2	23,9
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	24.266	58.336	2,1	140,4
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	45.174	54.634	2,0	20,9
Kautxuzko pneumatiko berriak	78.453	43.034	1,6	-45,1
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	45.145	40.536	1,5	-10,2
Turborreaktoreak, turbopropulsaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	38.110	38.887	1,4	2,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	37.183	38.705	1,4	4,1
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	16.729	38.288	1,4	128,9
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	30.792	35.538	1,3	15,4
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsauearako	38.054	35.514	1,3	-6,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	27.273	34.704	1,3	27,2
Burdina edo altzairuzko gainerako enbaturak	37.725	34.150	1,2	-9,5
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	27.391	25.392	0,9	-7,3
Arrain izoztua xerratu gabe	4.934	23.607	0,9	378,5
Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste enbatura moldeatu batzuk	21.281	22.565	0,8	6,0
Transformadore elektrikoak, bihurtzaile estatikoak eta erreaktantzia-bobina	32.303	22.294	0,8	-31,0
Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	66.099	21.674	0,8	-67,2
Altzairu herdoilgaitzeko barra eta profilak	27.476	21.609	0,8	-21,4
Transmisio-ardatzak, kojinetak, engranajeak, enbrageak, etab.	21.786	21.498	0,8	-1,3
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	20.111	20.944	0,8	4,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abuztuaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Arabian, "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" (lurralde honetan esportatutako guztizkoaren % 31,9) eta **"Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak"** (zifra globalaren % 18,3), hots, muga-zergen bi partida nagusiek gehikuntza nabarmenak izan dituzte aurreko urtearekin alderatuta, 51 milioi euro eta 42,2 milioi euro hurrenez hurren. **"Trenbide edo antzekoetarako ibilgailuen parteak"** da gehien igo den partida (% 366,1); halaber, gorakada nabarmena izan du **"Trenbideetarako automotorrak eta tranbia autopropulsatuak"** partidak (35,5 milioi euro esportatu dira) —aurreko urteko aldi berean esportaziorik ez egoteak azaltzen du hazkunde hori—.

Aitzitik, **"Kautxuzko pneumatiko berriak"** (38 milioi euro gutxiago edo -% 71,3), **"Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak"** (-% 29,0) eta **"Soldadurarik gabeko burdinazko edo altzairuzko hodi eta profil hutsak"** (- % 20,7) partidetan atzera egin da; azken horiek esportazio guztien artean garrantzitsuenen artean daude.

Arabako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	807.701	877.591	100,0	8,7
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	228.622	279.650	31,9	22,3
Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	118.275	160.425	18,3	35,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	50.762	36.021	4,1	-29,0
Automotorrak, trenbideetarako eta tranbia autopropulsatuetarako	0	35.514	4,0	-
Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	41.188	32.672	3,7	-20,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	7.829	16.054	1,8	105,0
Ardoa, mahats freskoarena	14.768	15.593	1,8	5,6
Kautxuzko pneumatiko berriak	53.236	15.265	1,7	-71,3
Burdinako edo altzairuko beste tutu batzuk eta profil hutsak	12.423	13.423	1,5	8,1
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	2.787	12.989	1,5	366,1

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abuztuaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Bizkaian nabarmentzekoa da "Xerratu gabeko arrain izoztua" partidaren igoera, 2024ko ekainean 3,5 milioi euro izatetik aurtengo ekainean 22,4 milioi euro izatera igaro baita (% 542,1). Gainerako partida nagusien artean, soilik "Kautxuzko pneumatiko berrien" esportazioek (% 10,4 eta 2,6 milioi euro gehiago) egin dute gora nabarmen. Aitzitik, Bizkaian esportazio-pisu handiena duten bi partidak murriztu egin dira: "Petrolio-olio finduak" eta "Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak", % 23,9 eta % 17,6 jaitsi baitira hurrenez hurren, lehenengo kasuan 18,7 milioi euroko atzeraldi absolutuarekin eta bigarrenean 12,2 milioi eurokoarekin. Hala ere, murrizketa handiena (-% 50,1), 20 milioi euro gutxiago esportatuta, "10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" partidari dagokio.

Bizkaiko hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	1.104.694	854.650	100,0	-22,6
Petrolioaren olio finduak	77.996	59.346	6,9	-23,9
Automobilentzako zati eta osagarriak	69.811	57.559	6,7	-17,6
Turborreaktoreak, turbopropultsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	37.940	38.812	4,5	2,3
Kautxuzko pneumatiko berriak	24.597	27.159	3,2	10,4
0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	22.956	24.955	2,9	8,7
Arrain izoztua xerratu gabe	3.482	22.359	2,6	542,1
10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	39.943	19.916	2,3	-50,1
Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	20.866	19.426	2,3	-6,9
Berotan ijetzitako produktu lauak, aleatu gabeko eta txapatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm	19.695	16.408	1,9	-16,7
Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketarako euskarriak	16.219	15.517	1,8	-4,3

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abuztuaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Gipuzkoan hamar partida esportatzaileenetako bat bakarrik murriztu da, "Trenbide edo antzekoetarako ibilgailuen parteak"; produktu horren esportazioak 9 milioi eurotan murriztu dira (-% 26,5).

Aipagarriak dira "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, bagajeak, posta eta abar" eta "Hamar pertsona edo gehiago —gidaria barne— garraiatzeko ibilgailu automobilak" atalen igoerak, 34 eta 21,4 milioi euro gehiago esportatu baitira, hurrenez hurren; hau da, % 141,4ko eta % 128ko hazkundeak izan dira. Aipatzekoa da, halaber, "Arrantza-ontziak eta itsas produktuen tratamendurako lantegi-ontziak". Produktu horren esportazioaren balioa 79,7 milioi eurokoa izan da 2025eko ekainean; igoera hori aurreko urteko aldi berean esportazio-operaziorik izan ez delako gertatu da.

Gipuzkoako hileko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera. Milaka euro (p). Ekaina 2025

	2024	2025	2025 (%)	2025/2024 (%)
ESPORTAZIOAK GUZTIRA	857.631	1.000.158	100,0	16,6
Automobilentzako zati eta osagarriak	75.079	83.869	8,4	11,7
Arrantza-itsasontziak eta itsasontzi faktoriak itsas produktuen tratamendurako	0	79.707	8,0	-
Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	24.086	58.139	5,8	141,4
Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	44.996	56.653	5,7	25,9
Txorrotetarako artikulak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	29.987	39.699	4,0	32,4
Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	16.721	38.130	3,8	128,0
Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	33.940	24.940	2,5	-26,5
Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	16.239	21.990	2,2	35,4
Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	20.075	20.113	2,0	0,2
Ontziak eta paketatzeko aparatuak garbitzeko, betetzeko, ixteko, etiketatzeko makinak	18.849	19.318	1,9	2,5

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abuztuaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika

Inportazioak aztertuz gero, ikusten da bikoiztu egin direla "*Petrolio-olio finduen*" erosketak (% 106,4); izan ere, 263,9 milioi euro inportatuta, inportatutako produktu guztien % 11,5 hartzen du. Garrantziari dagokionez haren atzetik datorren partidak, "*Petrolio edo mineral bituminosoko olio gordinak*", aldiz, % 56,0 laga du (155,7 milioi euro inportatu ditu). Horrez gain, hamar partida nagusietatik beste bostek atzera egin dute inportatutako balioan: "*Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak*" (-% 2,5), "*10 pertsona baino gutxiagoko turismoak*" (-% 11,9), "*Industria kimikoko eta honi lotutako beste prestakuntza eta produktu batzuk*" (-% 29,4), "*Berotan ijeztutako produktu lauak, aleatu gabeko eta xaflatu edo estali gabeko burdinazkoak edo altzairuzkoak > 599 mm*" (-% 28,4) eta "*Elikagaien edo edarien industrietan erabilitako substantzia usaintsuen nahasketak*" (-% 26,9).

Bestalde, zenbait partidatan, igoerak izan dira, aipatutako "*petrolio-olio finduak*" partidan emandakoaz gain: "*Enbolo, diesel edo erdi-diesel motorrak*" (% 10,2), "*Galdaketa, burdina edo altzairuzko txatarra*" (% 9,3) eta "*Metagailu elektrikoak eta horien zatiak*" (% 17,2).

Jatorri/helmuga herrialdeak, 2025eko ekaina

Hilabete honetan, ranking esportatzailearen lehen postuetan honako hauek daude:

- Alemania:** 437,4 milioiko balioa duten produktuak jaso ditu gure erkidegotik, % 112,7ko estaldura-tasarekin.
- Frantzia:** 382,8 milioi euroko ondasunak esportatu dira herrialde horretara, % 200,3ko estaldura-tasarekin.
- Erresuma Batua:** 194,8 milioi euroko balioagatik esportatu da, % 115,8ko estaldura-tasarekin.
- Italia:** gure esportazioetatik 157,7 milioi herrialde horretara bideratu dira, eta estaldura-tasa % 136,0koa izan da.
- Ameriketako Estatu Batuak:** herrialde horretara 151,3 milioi euroko salmentak egin dituzte, % 148,9ko estaldura tasarekin.

Alemanien kasuan izan ezik (% 4,5 gehiago esportatu da), urteko aldakuntzak negatiboak dira: Frantzia (-% 16,3), Erresuma Batua (-% 6,1), Italia (-% 9,8) eta Ameriketako Estatu Batuak (-% 9,1).

Bost herrialde horiek esportazioen guztizkoaren % 48,5 hartzen dute; horietako hiru EB27koak dira; bertan biltzen da esportazioen % 62,0.

2025eko lehen sei hilabeteetako metatuan esportazioak % 0,7 jaitsi dira, baina merkataritza-saldo positiboa mantendu da, 2.113 milioi eurotik gorakoa

Lehenengo sei hilabeteetan, eta Euskal AEko esportazioen kasuan, % 0,7ko jaitsiera txikia erregistratu da aurreko urteko aldi beraren aldean, hau da, 109.5 milioi euro gutxiago izan dira. Esportazioen zenbatekoa, berriz, 15.716,9 milioi eurokoa izan da aldi horretan.

Bizkaiko esportazioak Euskal AEko handienak dira, 5.526,4 milioi euro guztira; Gipuzkoakoak 5.242,8 milioi euro eta Arabakoak 4.947,7 milioi euro.

Produktu mota kontuan hartuta, erkidego osoan "*Produktu ez-energetikoak*" izan ziren nagusi esportazioan, 15.049,8 milioi eurekin, 2024ko lehen sei hilabeteetan baino % 2,3 gehiago. Hazkunde hori ez zen homogeneoa izan; Bizkaiko esportazioak % 4,8 jaitsi ziren bitartean, Arabako eta Gipuzkoako esportazioek aurreko urtekoak gainditu zituzten, % 8,1ean eta % 4,2an, hurrenez hurren. Aitzitik, "*Produktu energetikoen*" esportazioak % 40,0 jaitsi dira Euskal Autonomia Erkidego osoan, urte arteko konparazioa eginez gero.

"10 pertsona baino gutxiagoko turismoak" partida esportazioen artean liderra da 1.728 milioi merkaturarekin, eta % 39,2ko igoera izan du. 25 partida nagusien artean, hazkunde esportatzaile handienak —% 100etik gorakoak— honako hauetan eman dira: "Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiari-autoak, bagajeak, posta eta abar" (229,9 milioi euro esportatu eta % 135,3 gehiago); ondoren datoz "Soja-olioa" (119,4 milioi euro esportatu eta % 119,5 gehiago) eta "Trenbide edo antzekoetarako ibilgailuen parteak" (% 112,1 gehiago, 279,5 milioi euro esportatuta —aurreko urteko aldi berean baino 147,7 milioi euro gehiago—). Beste aurrerapen nabarmen batzuk partida hauetan eman dira: "Turborreaktoreak, turbopropulstsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, horien zatiak eta osagaiak barne" (44,7 milioi euro gehiago) eta "Hodietarako txorroten, balbula eta antzeko organoen artikuluak" (37,9 milioi euro gehiago).

Aldiz, hogeita bost partida nagusietatik lautan atzera egin da: "Salgaiak garraiatzeko ibilgailu automobilak" partidaren % 4,2ren eta "Petrolio-olio finduak" partidaren % 35,4ren artean.

Euskal AEko esportazioen rankinga, arantzel-partiden arabera, urteko metatua (p). Ekaina 2025

	Kodea	Izendapena	Mila euro
		ESPORTAZIOAK GUZTIRA	15.716.876
1	8703	10 pertsona baino gutxiagoko turismoak	1.728.111
2	8708	Automobilentzako zati eta osagarriak	1.073.842
3	8704	Zamak garraiatzeko ibilgailu automobilak	758.255
4	2710	Petrolioaren olio finduak	568.901
5	4011	Kautxuzko pneumatiko berriak	421.783
6	7216	Burdinazko edo aleatu gabeko altzairuzko profilak	313.269
7	8481	Txorrotetarako artikuluak, balbulak eta antzekoak tutuetarako	300.775
8	7304	Hodiak eta profilak hutsak, soldadurarik gabe, burdinazko edo altzairuzkoak	289.477
9	8607	Burdinbide eta antzekoetarako ibilgailuen parteak	279.469
10	8411	Turborreaktoreak, turbopropulstsatzaileak eta gainerako gas-turbinak, bere piezak eta osagaiak barne	245.771
11	8605	Trenbideetarako eta antzekoetarako bidaiariautoak, ekipaje-furgoiak, posta-autoak eta bestelakoak	229.903
12	7606	0,2 mm baino gehiagoko lodiera duten aluminiozko xafiak eta tirak	210.112
13	8504	Transformadore elektrikoak, bihurgailu estatikoak eta erreaktantzia-bobina	191.313
14	7326	Burdina edo altzairuzko gainerako manufakturak	190.450
15	8537	Koadroak, taulak eta kontrolerako edo elektrizitate-banaketatara euskarriak	170.832
16	9990	Aduana-tarifa berariaz jasota ez dauden merkantziak	168.664
17	8428	Igogailuak, eskailera mekanikoak, garraiagailuak, etab.	145.207
18	8501	Motor eta sorgailu elektrikoak (ekipo elektrogenoak izan ezik)	136.139
19	7325	Galdaketa, burdina edo altzairuzko beste manufaktura moldeatu batzuk	134.883
20	8702	Gidaria barne hamar pertsona edo gehiago eramateko ibilgailu automobilak	134.697
21	7222	Altzairu herdoilgaitzezko barra eta profilak	134.003
22	0303	Arrain izoztua xerratu gabe	123.054
23	8301	Metal arruntezko giltzarrapo, sarraila, morroilo eta giltzak	120.568
24	8483	Transmisio-ardatzak, kojiniteak, engranajeak, enbrageak, etab.	119.904
25	1507	Soja-olioa	119.405

(p)Behinbehineko datuak

Data 2025eko Abuztuaren 18a

Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren estatistika


2025eko lehen sei hilabete hauetako rankingaren arabera, Alemania da herrialde hartzaile nagusia, esportatutako guztizkoaren % 14,9rekin 2.344,3 milioi euroko balio baterako. Herrialde horretatik oso hurbil dago Frantzia, 2.342,1 milioi eurorekin eta esportazioen guztizkoaren % 14,9rekin. Ondoren, Erresuma Batua (% 6,5) eta Ameriketako Estatu Batuak (% 6,0) datoz; lau herrialdeetan Euskal Autonomia Erkidegoko esportazioen % 42,3 biltzen da.

Euskal AE osorako inportazioen metatua 13.603 milioi euro ingurukoa da. Urte arteko alderaketa eginez gero, ikusten da aurreko urteko aldi berean erregistratutakoa baino 216,4 milioi euro gutxiago dela. Beherakada horren arrazoia da Bizkaiak, 7.228 milioi euroko inportazio metatuekin, % 11,1eko beherapena izan duela aldi horretan, hau da, 2024ko lehen sei hilabeteetan baino 906 milioi euro gutxiago. Bestalde, Arabako inportazioak (511,8 milioi euro gehiago, % 17,2), 3.493 milioi guztira, eta Gipuzkoakoak (177,7 milioi euro gehiago, % 6,6), 2.882 milioi euro guztira, igo egin ziren.

"Produktu ez-energetikoak" partiden inportazioa % 7,6 igo da, baina "Produktu energetikoen" partida % 25,4 jaitsi da.

Euskal AEko ondasunen kanpo-merkataritzak, 2025eko urtarritetik ekainera, 2.113 milioi euroko saldo positiboa izan du, eta estaldura-tasa % 115,5 izatera heldu da.

Euskal AEko kanpo-merkataritzaren bilakaera



Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62